



- ✗ Garapenerako laguntza, migrazioak prebenitzeko tresna bat da. **“Lagundu diezaiogun garapen bidean den munduari, han geratu ahal izan daitezen, inora joan beharrik izan gabe”...**
- ✓ ... ahaztu egiten zaigu eta ez gara ohartzen **migrazioaren bultzada nagusia ez dagoela han, hemen baizik: eskulanaren eskaria, zaintza-lanetarako, ostalaritzarako, nekazaritzarako eta eraikuntzarako.**



Kontua ez da **lankidetzaren eta garapenerako laguntza** alde batera uztea, baizik eta **migrazio-fluxuak geldiarazteko neurri nagusiztat ez aurkeztea.**

- ✗ Migrazioaren arloan **murriztaileagoak izateak gutxitu egingo du migratzaileak etortzea...**

- ✓ **... Ez halabeharrez, eta horrela erakusten du errealitateak.** Adibidez, zenbait kasutan, denbora-tarte luzean, pertsona asko aritu ziren gure herrialdean sartzen eta bertatik ateratzen, **bisaren** beharrik gabe. **Baina bisa eskatzen hasi zitzaient unetik, kezka sortu zen haien artean, “orain edo inoiz ez” sentipena nagusituta: “Eta ezin banaiz berriro sartu?”. Horren ondorioz, pertsona horiek geratzen hasi ziren eta senideak ekartzen saiatzen.**



Sarritan egiaztatu izan dugu **behin mugak irekitzen direnean pertsonak ez dutela horrenbeste migratzen, edo “benetan” nahi dutenek migratzen dutela azkenean.**



- ✗ Jende asko iristen da, gehiegi, izugarri, **ezin ditugu gehiago hartu...**
- ✓ ... baina **txanponaren alde bat soilik erakusten zaigu: iristen den jendearena. Eta joaten diren pertsonak? Zergatik ez da emigrazioa aipatzen immigrazioari buruzko diskurtsoetan?**

1998-2008ko hamarkadan **5 milioi pertsona** etorri eta finkatu ziren, eta **2008-2018ko** hamarkadan, atzeritar jatorriko biztanleen kopurua gutxi handitu zen: **doi-doi 300.000 pertsona gehiago.**



Azken hamarkadan, sarrera eta irteeren dinamika konstantea da.



Argudio politiko asko, bereziki alderdi jakin batzuenak, sasi-terapien modukoak dira: konponbide sinpleak fenomeno konplexuentzat.